

MAILOPE

255

2018ko otsaila

TOKIKOM

BEGIRADA EZPAINETAN

PERTSONA GOR BATEN BIZIPENAK

ONGI ETORRI TXUS!

Ederra izan zen Txusi egindako harrera. Batez ere benetako ia zelako, familiaren zirrara etorri zelako, lagunena, inguruarena... Prestatutako gauzek mimo eta sentimendu benetakoak zituzten, esandako hitzek, emandako besarkadak... Batek zioen bezala, "benetako besarkadak" egon ziren, eta ez bizkarrean kolpeak eta listo...

Oraindik ere jarraitzen du nolabait ongi etorriak, inguru laguntzeko gaudela uste dut, adi egon nahi nuke astuna izan gabe... Eta ahaztu gabe ere, Txusen moduan bahituta jende pila bat dagoela oraindik, zigor oso handiekin, etxeetatik urruti... Min asko dago, ea nola lortu ez horrek gehiegikeriarik egitea eta buelta osasuntsua ematea...

Baina Txusen etorreraren pozarekin gelditu nahi nuke, horren esan nahiarekin, zigor exajeratuen aurrean ere, badagoela geroa, badagoela esperantza, joko zikinaren aurrean, badugula zer esana. Ale honetan, Txusi egin nion bertso sorta, beste askori egiteko prest dagoena. Besarkadak, animo eta aurrera!

Oskar Estanga

EDURNE LIZEAGA ESKISABEL

Eskerrik asko, Xanti!! Zer-nolako hitz politak, benetan. Amaren izena ikusi orduko aho zabalik jarri ondoren, maitasunez beteriko irribarrea eta malkoak isuri zaizkigu aurpegitik aldi berean. Ezin hobeki azaldu duzu amaren izaera, alaia, umila eta musika notaz betea. Ziur gaude abesteari inoiz utziko ez diola eta gure bihotzak berak eskainitako doinuaz beteko direla.

"Ama, inoiz jasan izan dugun minik handiena da zu galteza, baina gure bihotzetan, pentsamenduetan eta ekintzetan gurekin egongo zarela pentsatzeak ematen digu orainxe bertan aurrera jarraitzeko behar-beharrezkoa dugun indarra. Zure agurrean esan genizun bezala... Amatxo, emazte eta amona paregabea. Beti izan eta izango zara gure bizitza gidatzen duen izarra. Maite zaitugu."

Eskerrik asko zuen maitasuna adierazi diguzuen guztioi eta Eskerrik asko batez ere, amari zoriontsu izaten lagundu diozuenei. Eskerrik asko!

Zure familia.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko labore ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42



ekin
rotulacion

948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



FISIOTERAPIA
Andoni Ayerdi Olascoaga

609 536 002 · 948 604 789

Iturritak kalea 7, 31870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri



OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15**

948 60 47 24

**TAXI
SOROA**

609 168 217
Bederatzi plaza



04



20



24

- 04 ESKOLATIK MAILOPERA
- 05 BERTSO BERRIAK: Ainhoa Iriarte.
- 06 ELKARRIZKETA: Nekane Ziganda.
- 09 NOR DA NOR?
- 10 MOKOKA
- 11 KUXKUXEAN: Otsaileko zorion agurrak.
- 12 BATZARRE
- 14 LUZE ETA ZABAL
- 16 ERREPORTAJEA: Beteluko zaharren egoitzako langile borroka.
- 20 KULTURA
- 22 ELKARRIZKETATXOA: Sagardo denboraldia.
- 24 KIROLA
- 26 OREKA OSASUNTSUA
- 28 PLAZATIK PLAZARA: Jardunaldi jarraia ikastetxeetan.
- 30 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, Ibarberri ikastetxea, Nekane Ziganda, Lontxin Zubillaga, M^o Angeles Urrizalki, Mikel Betelu, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Naiara Igartua eta Araxes ikastetxea.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI

Matematika praktikoa



Ibarberri ikastetxeko 1.go zikloko ikasleok aurten matematika arloa modu praktikoa batean, lau txoko desberdinetan, (denda, lantegia, etxea eta bulegoa) lantzen hasi gara. Txoko bakoitzean lau pertsona egoten gara eta bakoitzak zeregin zehatzak ditu. Etxean eta lantegian gaudenean denda erostetak egin behar ditugu; lantegikoek artilea tela bat egiteko eta etxean gaudenok, elikagaiak otorduak prestatu ahal izateko. Bulegoan gaudenean, ordenagailuan joko ma-

tematikoak eta lan koadernoan ariketak egiten ditugu. Denda txokoan lau egunetan aritzen gara lau lanpostuetan, kutxan, mertzerian, elikaduran eta isurkarietan (likidoak), eta gainerrako txokoetan bina egun.

Matematika bizia landu nahi dugu eguneroko bizitzan egiten ditugun jardura batzuk imitatuz, materialak manipulatu, egiten duguna ulertuz eta matematikak gure eskuetara ekarri.

1. Maila B taldeko ikasleak.



eskolatik
mailopera



ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



EURITEAK

Azken asteotako euriteen ondorioz eskualdeko hainbat erreka bere ibilgutik atera egin dira eta hainbat belargune urez gainezka daude. Luiziak ere eragin ditu hainbat tokitan.



ARAITZ, HERRITXIKI INFERNU HANDI

Oraindik ez duzu ETB1en Araitzi eskainitako Herri Txiki Infernu Handi saioa ikusi? Ilbeltzaren 9an emititu zuen Euskal Telebistak. Nahieran atarian ikusgai dago: <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/herri-txiki-infernu-handi-4-denboraldia/5947/137492/araitz/>



SANTA AGEDA BEZPERA

Otsailaren 4an ospatu zen Santa Ageda bezpera Euskal Herriko hainbat txokotan. Gurean ere kalera irten ziren herritarrak koplak kantatzera. Araitz eta Betelukoek Atallun izan zuten hitzordua. Eta Lekunberrin aldiz, urteroko kalejira egin eta gero Arruitz eta Mugirora joanen ziren.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Ainhoa Iriarte (Arribe)

**Nola bizi zenuen
BEC-eko finala**
bagenekien saio
berezia zala,
bertsolariek denak
haien eginahala
pasarazi ziguten
eguna mundiala.

*Ez pentsa izan dela
hartzeko **mendeku**
Arriben elkartean
guk hartua **leku**
telebista genuen
11etan **prestu**
BEC-en egon beharren
goizetik ta **estu**.*

Doinua: Triste bizi naiz eta.

Juan Kruzentzat puntua:
Inauteritan aurten
mozorro polita

Oinak:
Adantza, arantza, antza, arrantza.



Gorra bai, baina ez mutua

Nekane Ziganda Urdanpilleta orain dela 44 urte jaio zen. Arribekoa da, Mugerza Etxekoa. Hiru urte zituela esan zioten sendagileek Arantxa Urdanpilletari alaba gorra zela eta geroztik Nekaneren laguntzarik handiena izan da, pertsona guztiz autonomoa izatea lortu duen arte. Gorra izateak ez dio hitz egitea galarazten eta beste hainbat gaitasun garatu ditu Nekane horri esker.

Nekane, zu jaiotzez zara gorra ala gaixotasun batek eraginda gelditu zinen entzun ezinik?

Nekane: Nik anaia bikia dut, Fernando eta hiru urterekin bera hitz egiten hasi zenean, gure ama ohartu zen nik ez nuela ezer ere hitz egiten. Sendagilearengana eraman ninduten eta han erantzunik ez zutenez Donostiara bidali gintuzten.

Arantxa: Donostiako otorrino hark esan zidan gorra zela. Biak beti elkarrekin ibiltzen ziren eta ez genuen susmorik hartu ordura arte.

Nekane: Baina ez dakigu zergatia...

Arantxa: Garai hartan ez zen ekografiarik ere egiten eta jaio ziren arte ez nekien bi zetozenik ere. Nekane azpialdean zegoen eta antza postura txarrean egon zen. Horrek eraginda izan liteke, baina ez dakigu ziur.

“Sortutako metodo berri bati esker, gorrei hitz egiten irakasten hasi ziren”

Eta hiru urteko alaba gorra dela esaten dizute orduan...

Arantxa: Egun hartan Roncalesan bueltatu nintzen etxera haurrarekin eta iritsi orduko negar batean hasi nintzen. “Zer egingo dut nik orain?” Galdetzen nion nire buruari. Iruñean zentro berezi bat bazela esan zidaten, baina barnetegi bat zen. Nik banekien zer zen haurtzaroan gurasoengandik banatzea eta ez nuen halakorik nahi. Gero Atalluko bizilagun bati esker jakin nuen Tolosan ere bazela gorrentzako zentro bat eta egunero hara joaten hasi ginen.

Keinu-hizkuntza ikasten hasi zinen?

Nekane: Ez. Tolosan, ezpainak irakurri eta ezpainekin hitz eginez hasi nintzen.

Arantxa: Ordura arte pertsona gorrek keinu-hizkuntza bitartez soilik komunikatzen ziren. Baina Nekane hasi baino urte batzuk lehenago sortutako metodo berri bati esker, gorrei hitz egiten irakasten hasi ziren.

Nekane: Keinu-hizkuntza berandu ikasi nuen. Lehendabiziko urteetan eskolan eta amarekin hitzak ahoskatzen eta ezpainak irakurtzen ibiltzen nintzen erabat.

Arantxa: Nik ez dut keinu-hizkuntza ikasi ere egin. Horrela ederki elkar ulertzen dugu.

Nekane: Donostiako Gorren Elkarreko kideak elkartzen garenean, askotan keinu-hizkuntzarekin komunikatzen gara geure artean, baina gainerakoekin ez.



Nekane Mendillorri bizi da astez, baina tartea duen bakoitzean etortzen da Arribera. Arg: Labrit.

Tolosako zentro hartan noiz arte egon zinen?

Nekane: Hamalau urte bete nituen arte. Hasierako urteetan goizetan Beteluko eskolara joaten nintzen eta arratsaldeetan Tolosara gorrekin.

Arantxa: Denboraldi batez joan zen, bere inguruarekiko lotura galdu ez zezan eta bertan bere lagunak izan zitzaizkan.

Nekane: Baina Beteluko eskolan irakasleak ez baninduen zuzenean begiratzen ezin nizkion ezpainak irakurri eta ez zen erraza klaseak jarraitzea. Idazten ikastea ere oso zaila izan zen, hitzak behin eta berriz kopiatuz eta gelditu gabe errepikatuz...

Eta hamalau urterekin zer hasi zinen ikasten?

Nekane: Inmaculada zentroan geriatria ikasi nuen eta hamasei urterekin Iruñera joan nintzen Erizaintza Eskolara. Han izpien espezialitate gradua ikasi nuen. Oso gogorra izan zen hura. Bertan ikasten zuen lehenengo gorra nintzen eta irakasleek ez zekiten nola tratatu, nahiz eta saiatzen ziren.

Etiket kanpo bizitzen hasi zinen orduan...

Nekane: Bai, aste osoa etiketik kanpo ematen nuen, Larrabide gazteen egoitzan bizi nintzen eta joan-etorriak autoz egiten nituen, nire kabuz. Astean bitan Txantreara joaten nintzen Gorren Elkartera eta han berezitatutako ikasleen laguntza izaten nuen.

Arantxa, hori zuretzat gogorra izango zen...

Arantxa: Bai. Ni 29 urterekin alargun gelditu nintzen, Nekane eta Fernandok bost urte bete gabe zituztela. Baina ni gaizki egonda ere ez nion inoiz eskolara eramateari utzi. Nahiko gogorra izan naiz Nekanarekin, pertsona autonomoa



Nekane bere anaia Fernandorekin batera Araizko dantza taldeko kide izan zen.
Arg: Nekane Ziganda..

izatea nahi nuelako eta halaxe da orain. Denetik egiten du, egurra moztu, baratzea egin, belarra moztu... Taberna batera joaten ginenean ni eseri egiten nintzen eta berak eskatzen zuen eskatu beharrekoa. Banekien zerbitzariari kosta egingo zitzaiola ulertzea, baina bera saiatu egin behar zen... "Eta bigarrenagoan ulertzen ez bazaituzte idatzi ezazu lotsarik gabe!"

Eta lagunak egitea erraza al zen Nekane?

Nekane: Iruñera joan nintzenean ez nuen inor ezagutzen eta asko kosta zitzaidan lagunak egitea eta egokitzea. Herrian beti izan dut nire lagun kuadrilla eta norekin hitz egin. Eta Donostian ere lagun kuadrilla dut. Gipuzkoako lagun asko ditut lehen Tolosan nintzenean gorren futbol taldean ibiltzen nintzelako. Eta orain ere tarteka autoa hartu eta Donostia-ra joaten naiz hango lagunekin eguna pasatzera. Errazagoa egiten zait pertsona gorrekin harremanetan jartzea.

Gidatzeko baimena ere ateratu zenuen...

Nekane: Fernando gidabaimena ateratzen hasi zen... Nik zergatik



Margotzea eta bestelako eskunalak egitea gustuko du Nekane. Arg: Nekane Ziganda.

"Beteluko eskolan irakasleak ez baninduen zuzenean begiratzen ezin nizkion ezpainak irakurri"

“Gogorra izan da,
baina merezi izan du”

ez nuen ba aterako! Amarekin ikasi nuen teorikoa. Amak gor egiten zidan eta Eguberrietako oporraldi batean atera nuen gidabaimena. Fernandok 18 urterekin eta nik 19 urterekin. 90 kilometro orduko muga dut eta atzerako ispilu handiagoa erabiltzen dut ikus eremu zabala goa izateko, baina ez dut bestelako mugarik gidatzeko.

Arantxa: Ikaragarria da oinetan eta eskuetan duen sentitzeko gaitasuna. Autoak soinu arraroren bat ateratzen badu, berak ez du entzuten baina sentitu egiten du.

Teknologiaren arloan emandako aurrerapausoak egunerokoa erraztuko zizuten, ezta?

Nekane: Bai. Mendillorin bizi naiz orain astez eta han txirrina jotzen didatenean etxean argi batzuk pizten zaizkit eta gauza bera iratzargailuarekin. Eta *Whatsapp* bat jasotzen dudanean ere argia pizten zait, aldiro ikusten ibili beharrik gabe. Aplikazio hori niretzat ikaragarria da. Edozein gauza baldin badut zuzenean komunikatu naiteke etxekoekin, ez dut inoren laguntzarik behar, ez diot inori deitzeko eskatu beharrik.

Gaur egun, non zabilzta lanean?

Nekane: Izpien gradua ikasi eta gero Iruñeko Gorren Elkartetik deitu ninduten Noaingo Gureak enpresan eguberrietarako jendea behar zutela esanez. 23 urterekin hasi nintzen eta geroztik han nabil lanean. Publizitatearen eta marketingaren arloan egiten dugu lan eta minusbaliotasunak dituzten pertsoneri enplegua ematen dien enpresa bat da.

Eta zein da zure lana bertan?

Nekane: Orain eskariak egin eta jasotzearen arduraduna naiz. Eskariak jaso, materiala falta bada eskatu eta lan bat iristen bazaigu antolatu egiten dut. Nik edozein enpresatan lan egin dezaket, baina enpresa gutxik kontratatzen dituzten pertsona gorrak.

Zerk ematen ditu egin nahi eta ezinaren pena?

Nekane: Ez dakit... Margotzea eta eskulanak egitea asko gustatzen zait, baina azkenaldian ez dut denborarik. Lehen Araizko dantza taldean dantzatzen nintzen. Pausoak buruz ikasten nituen edo anaiak egiten zizkidan keinuekin moldatzen nintzen. Nik musikarekin ez dut ezer sentitzen.

Niri hitz egiten ari zarela zure barruan ez duzu zure ahotsaren soinu zantzurik entzuten?

Nekane: Ez, ezer ez...

Arantxa: Gogorra izan da berarentzat eta baita etxekoentzat ere. Tolosara joaten ginenean bidean ikusten genituen gauzak errepi-katzen joaten ginen. Eta goizean haurra han utzi eta eguerdira arte elizaz eliza ibiltzen nintzen hotzik ez pasatzeko, garai hartan emakumeok tabernatan sartzera ere ez zegoen oso ongi ikusia eta, hala ibiltzen nintzen. Baina merezi izan du. Berak ez du inoiz konplexurik izan, ezta arazorik ere. Orain jende gorrarekin eta gorra ez denarekin defendatzen da eta ez du inolako arazorik goizeko laurak arte lagunekin parrandan ibiltzeko ere!



Gorren futbol taldeko lagunekin. Arg: Nekane Ziganda.

Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia Betelun lehen aldiz ospatutako Olentzeroren etorreran ateratakoa da

- Ezkerretik eskuinera: Imanol Estanga "Zulota", Ana Otamendi, Garbiñe Sasiain, Antxon Buldain, Josetxo Garcia "Zipri", Juan Karlos Buldain, Jokin Balda eta Pako Urrizalki.
- Aurrean jaiotza eramaten: Mikel Sasiain eta Garikoitz Lopez de Muniain.
- Eskuinean: M^a Angeles Urrizalki, Javier Arregi eta Iker Sanz.

nor da nor?

Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

IORTIA ELI INCA DITRETA | HORTZ BERRIKIA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatu: 948 467 603 - 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

SK **SUAKONTROL LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

Parranda eredua



●● Pello Azpiroz

lepa Mikel!!! Zer moduz? Badatoz ihoteak, urteroko mo-zorroen festa. Eta gaur festa eta parranda ereduaren inguruan hitz egitera natorkizue. Parrandak urte osoan zehar daude (gustu eta mota askotakoak) baina badago zerbait komunean dutena ia denek: alkoholaren kontsumo handia. Alkoholik kontsumitu ez den parrandarik ez dut ikusi inoiz, beti hor dagoen zerbait da. Honekin ez dut esan nahi alkohola ez dela edan behar eta ez dela ona (lotsak kentzeko, gozatzeko, eguneroko arazoak ahazteko, ligatzeko...), baina nire ustetan gaur egungo gazteen alkohol kontsumoa parrandan gehiegizkoa da. Gainera gazteak desaktibatzen beste tresna bat dela ere uste dut (baina hori beste baterako utziko dugu). Oso arraroa da parrandan edango ez duen norbait aurkitzea (ez baldin bada behintzat gau horretan "txoferra"), jendeak ez du normaltzat hartzen eta edaten ez duen horrek aukera asko dauzka giroan ez sartzeko. Noizbait ez litzateke zailtzan jarri beharko alkoholaren erabilera?

Gaur egungo parranda gune gehienek oinarrian dago alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa, baina musika komertzialaren monopolioa ere kezkatzen modukoa dela uste dut. Gustuak alde batera utzita, gehien entzuten den musika da ostaluetan eta zerbait desberdina entzun nahi izan ezkeretik "arnasguneetara" joan behar dut. Parranda batzuetara joateko gogorik ez dut izaten badakidalako ze musika egongo den eta horra joanez gero berehala aspertuko naizela. Euskal eszena urteetan izan da erreferentzia baina indarra galtzen ari da globalizazioaren eraginaren ondorioz eta ezezagunak diren taldeak ikustera joateko ohitura ere galtzen ari gara.

Uste dut momentua badela gure parranda ereduaren inguruan hausnartzeko eta buelta pare bat emateko. Zein da zure iritzia Mikel?



●● Mikel Hernandez

lepa Pello!!! Ongi esan beharko, orain inauterietarako prestatzen eta iristeko gogoz. Egia esan egun polita da, eta azkenean lagunekin herrian bertan, giro ona aprobetxatuz gozatzeko eguna dela deritzot.

Alkoholari dagokionez, parranda egiteko behar-beharrezkoa ez dela uste dut. Azken finean, norberaren buruan dago jai giroan ongi pasatzearen gakoa. Jende askok alkoholik gabe ongi pasatzen badaki, eta hori ere hausnartzeko modukoa da. Lotsak kentzeko, gozatzeko, eguneroko arazoak ahazteko, ligatzeko... norberak bere tresnak sortu behar ditu, eta horretarako, ez soilik parrandarako, baizik eta bizitzaren aurrean dugun ikuspegia oso garrantzitsua da. Zenbat eta tresna sozial gehiago izan, orduan eta errazagoa izango da parrandan eta jai giroan ongi pasatzea, alkohola edan eta edan ibili gabe.

Musikari erreferentzia eginez, nire ustez, musika mota ezberdinak egotea ez da juergarako txarra, eta ni parrandan egon naizen tokietan behintzat, leku ezberdinak daude, eta ondorioz, aukera anitzasuna dugu. Gainera, kalean bertan ere lagunekin hitz egiten egon zaitezke gustura aski, dagoen musika edozein dela ere.

Mentalitatea da garrantzitsua, eta egun horretan parrandarik egin nahi ez baduzu, hobeto beste plan batzuk egitea. Kasu horretan alkohola kontsumitzea erabaki okerra da, nire ustez, zure borondatearen kontra joaten zarelako.

Laburbilduz, nire iritziz, norbera da juerga nola ibili behar den erabakitzearen arduraduna, beti ere kontuan hartuz besteak errespetatu behar ditugula. Errespeturik ez badago, akabo parranda eta ongi pasatzea. Ez da bidezkoa ongi pasatzera doan jendeak parrandak zapuztera doazen horien gehiegikeriak jasatea, kasu askotan sekulako basakeriak egiteraino.





Jon Vicente Alkorta
Martxoaren 4an, 5 urte.
*Zorionak etxekoan partetik!!!
Segi beti bezain jator!!!
Muxuak!!!*



Urtzi Argiñarena Saralegi
Otsailaren 5ean, 5 urte.
*Zorionak gure mutil koxkorrari. Jarraitu
hain jatorra izaten, muxu haundi bat
etxekoan partez.*



Aitor Balda Irungarai
Otsailaren 13an, 8 urte.
*Zorionak eta aunitz urtez!!!
Infinito muxu familia guztiaren partez!!*



Nere Zabaleta Olasagarre
*Zorionak Lekunberriko Nere
Zabaleta Olasagarreri, otsailaren
11n, urtebetetze eguna duzulako.
12 muxu haundi, etxeko denak
maitasunez.*

Luzia Peña Jiménez
Otsailaren 19an, 10 urte.
*Bizitzak bere onena ematen digu
gauza txikiak handi egiten dakiten
pertsonek jartzen dizkigunear
bidean. Eta zu horietako bat zara.
Jarraitu horrela Luzia. ZORIONAK!*



Julen Torrado Beraza
Otsailaren 5ean, 14 urte
*Zorionak!! Disfrutatu zure egunean eta jaso
muxu handi bat etxekoan partez.*



Itxaso Oreja Altuna
Otsailaren 1ean, 3 urte.
*'Haunditzen, haunditzen, ari naiz haun-
ditzen txikia izanik...!' Ongi pasa zore
eunean pottokita, muxu haundiet etxeko
guztin partez!*

Oier eta Izei Goñi
Otsailaren 1ean 15 urte eta
ilbeltzaren 16an 10 urte.
*Zorionak bikote!!
Ongi-ongi pasa eta muxu bat
zuen etxekoan partez.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



IREKITA DAGO EHME PROBAN IZEN EMATEKO EPEA

Ekainaren 2an izanen da VI. Euskal Herria Mendi Erronka eta dagoeneko ireki dute izen emateko aukera. 750 korrikalarik parte hartu ahalko dute distantzia luzeko mendi lasterketa honetan eta azkeneko urteotan izandako arrakasta ikusita lehenbait-lehen izen-ematea komeni da.

Apirilaren 4a baino lehen izen ematen dute-entzako 56 eurokoa izanen da federatuentzat eta 60 eurokoa federatu gabeentzat. Horren ondotik eta oraindik ere 750 dortsalak saldu ez badira, izen emateko bigarren epea zabalduko dute.

Animatu eta eman izena www.ehmendierronka.eus atarian!

30 URTE BETETZEN DITU AURTEN LEGOAK

Martxoaren 24an Arruizko Txikitoren omenezko Legoa izanen da. Antolatzaileek aurten ere bi distantzia proposatu dituzte. Ohiko ibilbideaz gainera, 4 kilometroko beste batean parte hartzeko aukera eskaini dute, Azpirozko mendateraino eta buelta. Beraz, ez dago aitzakiarik. Azken urteotan nabarmen jaitsi da lasterketa honen parte hartzea. Iaz 75 izan ziren Legoan irten ziren korrikalariak. Ea 30. urteurrenaren aitzakiarekin beste horrenbestek parte hartzea lortzen dugun! Animatu!



LARRAUNDIK MUNDUA EZAGUTUZ ETA ULERTUZ

Ontza elkarteak ekimen ezberdinak antolatu ditu mundua ezagutu eta beste errealitate batzuk ulertzeko. "Ontza elkartearentzat internazionalismoa da lan ildoetako bat eta munduan zehar dauden egoerak, baloreak eta praktikak ikasi nahi ditugu. Munduari begira jarri eta herrien arteko elkartasuna bultzatzea da gure helburua".

Otsailaren 16tik 23ra bitarte lau hitzordu interesgarri proposatu dituzte:

- Otsailaren 16an (ostirala) arratsaldeko 19:00etan, Ontza Zulon.

Latinoamerikako egoera eta Boliviako prozesua ezagutuko ditugu. Besteak beste Askapenako kideak eta Mikel Betelu, Bolivian egondako brigadista lekunberriarrak, eskainiko dute hitzaldia.

- Otsailaren 18an (igandea) arratsaldeko 18:30ean, Ontza Zulon.

Zine emanaldia "Tambien la lluvia" Boliviako uraren gerraren inguruan. Ondoren mahai ingurua eta azalpenak.

- Otsailaren 23an (ostirala) arratsaldeko 19:00etan, Plazaolako aretoan.

"Errefuxiatuen eta migratzaileen egoera aztertzen Europan", ongi etorri errefuxiatuak eta helpnaren eskutik (larraldi humanitarioetarako suhiltzaileak, Grezian eta Serbian ibilitakoak).

MAILOPE BAZKIDEEN BATZARRA IZANEN DA OTSAILAREN 23AN

Mailopeko bazkideen batzarra egingo du Mailope Aldizkariko zuzendaritza taldeak otsailaren 23an arratsaldeko 18:00etan Beteluko Indianoetxean. Urteko balantze ekonomikoa egingen da eta berrietasunen eta aldizkariaren egoeraren berri emanen du. Zuen ekarpenek berebiziko garrantzia dute gure eguneroko jarduna hobetzeko eta denon artean kalitatezko hilabetekaria eskaintzeko. Beraz, bazkide guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu!



BINA DESFIBRILADORE JARRIKO DITUZTE LEKUNBERRIN

Lekunberrin bi desfibriladore jartzeko proposamena aurkeztu zuen Lekunberriko EH Bildu taldeak eta Udalbatzak aho batez onartu zuen. Bat dagoeneko Plazaola kiroldegian dago eta bestea Lekunberriko plaza inguruan jartzea aurreikusten dute.

“Desfibriladore bat (DESA) ezinbesteko gailua da bihotzekoa eman dion pertsona bati bizia salbatzeko, formazio erraz bat jaso duen edonork arriskurik gabe erabili dezakeena. Inbertsio txikia eskatzen du eta gaur egun herri askotan eskaintzen den baliabidea da”.

Bi aparatuek horiek jartzeaz gainera, Udalak formazio saioak eta hitzaldiak eskainiko dizkie herri-tarrei aurki.



PLAZAOLA FITUR 2018 AZOKAN

Plazaola Partzuergo Turistikoak Plazaolako gidaliburu berria eta bide-mapa berria aurkeztuko ditu FITUR 2018 azokan. Gidaliburuan Plazaolako eta inguru hurbileko baliabide eta zerbitzuen eskaintza ilustrazioen bitartez jasotzen da. Eta Bide-mapan berriz, 170km baino gehiagoko bide eta mendi-bideetako sare zabalak eskaintzen da, Iturraskarrik berreskuratutako ondareko elementuak ere bilduz. Dagoeneko, Lekunberriko Turismo Bulegoan eta Partzuergoko kide diren udal eta establezimenduetan eskuragai daude.

Gure sustraien itzal

Zenbatetan egin dion ihesi errealitateari. Zenbatetan ito den ametsetan. Oroitzapenetan igeri, familiako baserrira joatea erabaki zuen azkenik. Aitona-amonen etxea izandakoa, izeba-osabena eta aitarena. Aita hil zitzaionetik ez zen bertaratzen ausartu.

Horrenbeste gustatzen zitzaizkion neguko egun batean izan zen, hotzak eta eguzki izpiek bat egiten duten horietakoa. Prest zegoen. Bi urteren ondoren bere sustraiak ere badirenak sentitu nahi zituen berriz. Bi urte luzez bidaia bera egunero buruz egin ondoren, autoa hartu eta denborak urratu ez zuen ibilbidea jarraitu zuen.

Etxeko ate aurrean gelditu zen. Sekula nabaritu gabeko bibrazio, usainak, oroitzapenak... etorri zitzaizkion burura. Sentipen berri bakoitza aztertzen, sufritzen, disfrutatzen gelditu zen une batez.

Egurrezko atari zaharra zeharkatzeak hotzikara eragin zion. Begiak itxi zituen momentu hartan. Egur errearen usaina gogoratu zuen, txokolate beroarena, mami egin berriarena... Sekula ez zen jabetu usaimenak oroitzapenetan duen indarraz. Malko bat jauzi zitzaion.

Begiak ireki eta etxe osoa miatzeko ahaleginak eginen zituela zin egin zion bere buruari. Urteak aurrera egin arren, denak berdin jarraitzen zuela ikusteak lasaitu egin zuen. Altzariak bere tokian jarraitzen zuten. Inork ez zituen ukitu *amoñak* aspaldi jarritako argazkiak. Inork ez zituen ohatzeetako maindire eta edredoiak ukitu. Aitaren logelak be-



rak utzi bezala segitzen zuen. Logelako apaletan, Nafarroako geografia eta historiari buruzko liburuak ere hantxe zeuden. Tarte batez ohatzean eserita gelditu zen. Mesanotxean zeuden soldadutza garaiko argazkiak ikusten igaro zituen minutuak.

Azkenik sukaldean sartu zen. Amoña ikusi zuen erradiadore ondoan eserita, attunak esnea berotzen zuen bitartean. Atte telebista aurrean, eguerdiko bertso saioa ikusten. Sukaldea zen etxeko gelarik zailena, oroitzapen gehien gordetzen zituena.

Sabaira begiratu eta arrakala handi bat ikusi zuen. Norbaitek, orduan, bihotzean laban bat sartu zion. Inoiz ez bezalako amorrua,

mina, tristezia sentitu zituen. Urteek baserrian eragindakoak konponduko zituela esan zion bere buruari.

Harro zegoen, eta horrek negargura eragin zion. Harro bere sustraiengatik. Harro bertan bizi eta ikasi zituen bizipenengatik. Harro bisita horrek berarengan sekula hilko ez den zerbait piztu zuelako. Aitarena izan zen etxea, bere sentitu zuen. Orainak eta iraganak bat egin zuten. Baserri horrekiko zuen lotura indartsua zen oso.

Txusi ongi etorria

Doinua: Gogoratzen al zara.

1.
Hona sentipen pila
bertsotan jarria,
Txus momentu hau baita
ikaragarria,
**historian pasa nahi
genuke orria**
zure esperoan zen
zure jatorria.
**Historian pasa nahi
genuke orria**
jaso ezazu gure
ongietorria.

2.
Bahitua zintuzten
eta ez da broma
zure argazkiekin
horrenbeste horma,
**guk desio genuen
ertortzea hona**
ilusioa egin
zaigu zoriona.
**Guk desio genuen
ertortzea hona**
argazkien atzean
zegoen pertsona.

3.
Natura ta itxura
inguruarena
euskaldun ta herritar
garenaren sena
**dena aldatu da ta
berdin dago dena**
bahituta egon zaren
denboran barrena.
**Dena aldatu da ta
berdin dago dena**
mantendu dugu ahal
genun polittena.



4.
Zuk lasai egin orain
festa ta atsedean
presarik ez dagola
uste dut nik zeren
**handik irten bazara
hain goapo hain lerden**
egokitze denbora
lasai hartu hemen.
**Handik irten bazara
hain goapo hain lerden**
ziur badakizula
pazientzia zer den.

5.
Bihotzak izozteko
omen da kartzela
bizirauteko ustet
egin behar dela,
**jakin gu hemen hori
urtzeko gaudela**
udaberrin Mailoan
elurra bezela.
**Jakin gu hemen hori
urtzeko gaudela**
maitasun uholdeak
irten daitezela.

6.
Txus gaur zurekin gaude
inguru ta lagun
bizitza horrela da,
ospatu ta jardun
**denok pertsona aske
garela demagun**
nahiz bizi honek nahiko
zirrikitu badun.
**Denok pertsona aske
garela demagun**
orain askatasuna
eraiki dezagun.

“Gure mimoen beharra dute askok, baina ez dugu horretarako betarik”

Beteluko zaharren egoitzako langileak lan baldintza duinak lortzeko borrokan dabiltza azken urteotan. Lau urte dira Asistencial Villa De Betelu egoitzan lan egiten duten langileei lan hitzarmena aldatu zitzaiera eta ondorioz okerrera egin dute euren lan baldintzek.



Nerea Navarro Beteluko egoitzako langileen ordezkaria da. Arg: Labrit.

2013. urtetik euren eskubideak errespetatuko dituen lan hitzarmen baten alde negoziatu nahian badabiltza ere, salatu dute jabeek ez dutela egoera larri horren aurrean behar haina esku hartzen eta erantzule egiten dituzte Ama-Amavir enpresa eta baita egoitzaren jabetzaren herena duen Beteluko Udala ere.

Abenduan prentsaurreko baten bitartez euren egoera publiko egin eta gero otsailaren 14an Nafarroako Parlamentuan izanen dira. Nafarroako Gobernuak diru publikoa inbertitu arren, Beteluko egoitzan kalitatezko zerbitzu publikoa ez dela eskaintzen azalduko dute.

Gaur egun, 40 pertsona bizi dira egoitzan, horietatik 25 plaza kontzertatuak dira. 25 langile daude momentu honetan kontratu mugagabearekin eta 7 behin-behineko kontratuarekin.

2013ko abuztuaren 1ean estatu mailako hitzarmenarekin lan egiten dabiltzanetik langile bakoitzak 4.500 euro galdu ditu batezbeste eta gehienak ez dira iristen 1.000 euroko lan-saria irabaztera. Gainera, lehen baino 100 ordu gehiago lan egiten dute.

Ama-Amavir taldeko gainerako egoitzetan baino %13 gutxiago kobratzen dutela salatzen dute, eta gutxienez baldintza berdinetan lan egin nahi dute.

Beteluko egoitza kudeatzen duen Ama-Amavir enpresak bere aldetik adierazi du negoziaketak aurrera doazela eta gaiari irtenbide bat emateko ahaleginetan dabiltzala.

Nerea Navarro Beteluko egoi-



Betelun garai bateko bainuetxea zegoen inguruan dago kokatuta egoitza.
Arg: J.A. Garaikoetxea.

tzako langileen ordezkaria da, zortzi urte daramatza bertan lanean eta bizi duten egoeraren berri eman digu.

Estatu mailako hitzarmena aplikatu aurretik zein beste hitzarmen zenuten?

Amma taldeak Nafarroan zituen egoitza guztientzako zuen hitzarmen bat genuen. Hitzarmen horrekin geundenean, 1.699 ordu egiten genituen lan eta orain berriz 1.792 ordu. Defizita sortzen genuenaren aitzakiarekin Amma Ibañeta eta Amma Beteluko langileoi aurreko hitzarmenetik kanpo utzi nahi izan gintuzten. ELA sindikatuak denbora luzez borrokatu zuen denok lan-baldintza berak izan genitzan. ELAren iritziz ezin ziguten estatu mailako hitzarmena aplikatu eta enpresa auzitara eraman zuen, baina lan erreformak ekarritako aldaketengatik neurri handi batean auzia enpresak irabazi zuen.

Estatu mailako hitzarmena saihes-teko Udalak bitartekari lanak egin nahi izan zituen, erdibideko hitzarmen bat negoziatzeko...

Udalak enpresa itun bat eskaini zigun. Itun horretan biltzen ziren baldintza batzuk estatu mailakoak baino hobek ziren, baina beste zenbait okertu egiten zituen. Adibidez, igande batez lan egiteagatik orain 18 euro kobratzen ditugu eta itunean 13 euro eskaintzen ziguten. Gainera, baldintza horiek ez zizkiguten denbora luzez ziurtatzen. Ez zuten



Egoitzan lan egiten duten langileetakobatzuk.
Arg: Labrit.

ezer itxia sinatu nahi eta Nafarroan ez dagoenez egoitza guztietarako hitzarmen probintzialik edozein momentutan estatu mailakoa aplikatzeko aukera zuten. Egokiena Nafarroako Gobernuak probintzia mailako hitzarmena izatea litzateke, horrela denak baldintza berdintsuak izango genituzke. Ulertzen dugu enpresak dirua irabazi behar duela, baina langileon kontura ari dira.

Zein baldintzatan lan egiten duzue gaur egun?

Hemen urte osoan 24 orduz egiten da lan eta horregatik igandetan lan egiteagatik lan egunetan egun libreak ematea lortu genuen baina, hitzarmen berriarekin zortzi jaiegun kendu zizkiguten. Enpresak oso soldata baxuak eta lan-baldintza

gogorak eskaintzen ditu eta horren ondorioz ez dituzte profesional bereziak kontratatzea lortzen. Etortzen direnak berehala alde egiten dute egoera ikusita. Eta askotan ez dira hutsune horiek betetzea lortzen. Eta bajak daudenean berdira gertatzen da, enpresak langilerik aurkitzen ez duen aitzakiarekin bertan gaudenoi are eta lan karga handiagoa jartzen digu. Ez gara iristen eta batzuetan txandak bikoiztu egiten dira eta horrela ezinezkoa da zerbitzua behar bezala eskaintzea.

Zer gertatzen da erizainekin?

Momentu honetan erizain bat bajan dago eta ez dute bere lekua betetzeko beste erizainik topatzen. Berez, bi erizain eta erdi izatea dagokio egoitzari eta lanaldi gogorak dituzte,



Lau urte daramatzate lan baldintza duinak izateko hitzarmen bat negoziatu nahian. Arg: Labrit.

hamaika ordukoak. Baina gauetan gerokultore bat eta garbitzaile bat baino ez gara egoten egoitzan, 41 aitona-amonekin. Eta lan guztia biek egiten dute. Lehenik egoitza garbitzen da presaka, gero gelaz gela erronda egiten da, diabetikoei esnea ematen zaie, labadorak jarri...

Garbitzaileak gerokultorearen lana egiten?

Bestela gerokultore bakarra egongo litzateke 41 pertsona zaintzen. Aitona bat gaizki jarritz gero edo zerbait pasaz gero bakarrik zaude. Horren egoitza txikia denez horrekin jolasten dute. Guri estatu mailako hitzarmena aplikatzen zaigu baina gainerako enpresetan egiten den lana baino gehiago egiten dugu. Beste egoitze-

tan askoz langile gehiago daude, bestelako funtzioak betetzen dituzten postuak daude. Hemen harreraren datuak garbitzaileen arduradunaren lanak ere egiten ditu, garbitzaileak gerokultorearenak, gerokultoreak erizainarenak. Gainerako egoitzetan erizainak gau eta egun izaten dira, hemen berriz bajan dagonean edo gauetz zerbait pasaz gero larrialdietara deitzen dugu, zuk zure etxean bezala.

Eta egunez?

Lau langile 41 aitona-amonetzako. Bi pertsona daude 15 oso menpekoez arduratzen direnak. Ikaragarria da lan karga. Goizero 41 pertsona horiek dutxatu edo garbitu eta jantzi. Bakoitzak hamar aitona-amon. Goizeko zazpitan hasten da goizeko txanda eta bederatzi terdietarako denek gosaltzen egon behar dute. Ez dizu denborarik ematen. Pertsona horiek gero gosaltzen ematen diete eta erizaina falta bada hartu beharreko botikak ematen dizkiete. Orain dela gutxi lankide bat antsietateak jota gelditu zen solairu batean oso menpekoak diren 15 pertsonekin bakarrik utzi zutelako. Bi langile egonda ere zaila da, baina bakararekin ezinezkoa. Bat itolarriarekin hasiz gero eta bestea... Ezin da!

Eta soldata baxuagoak dituzue orain...

Bai, gauetz oso gutxi kobratzen dugu. Gabon gauean lan egiteagatik 30 euro inguruko osagarria kobratu genuen.

Martitxonea
sagardotegia
Inaxio Begiristain



Aldatz
Nafarroa

948604607

Txooooo!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ.

Eta gainerako gauetan 18 euro. Oso frustagarria da gure lana baloratzen ez dela ikustea. Garbitzaileok zazpi ordutan 30 logela garbitzen ditugu, 30 komun, pasabideak, gainerako gelak... Eta gauez 41 pertsona horien arropak garbitu, lisatu eta tolesten ditugu. Eta lehen izarak kanpora eramaten ziren garbitzera, baina orain hori ere guk egiten dugu. Gainerako egoitzetan, soldata altuagoak dituzte, jaiegun gehiago dituzte eta lan-ordu eta lan-karga gutxiago.

Baldintza horietan zaia izango da zaintzeaz gainera behar duten arreta eskaintzea...

Oso menpekoen solairuan bi langile egoten dira, baino gainerako solairuetan langile bakarra 10-15 aitona-amonekin. Gurekin hitz egiteko beharra dute askok, gure mimoen beharra, baina ez dugu horretarako betarik ere eta guk bihotza ere badugu eta pena handia ematen digu askoz hobe zaindu ahalko genituzke-elako. Egoitza hauek hezitzaileak, errehabilitatzaileak, gizarteratzaileak etab. direla esaten da, hemen behintzat ez dago halakorik. Denbora gehiago bagenu, bakoitzari paseotxo bat emateko, gorputza mugiarazteko eta alaitasuna transmititzeko....

Zertan dira negoziaketak?

Joan den maiatzean hitzarmen proposamen bat aurkeztu genion enpresari uda osoa utzi genion erantzuteko eta urriaren hasieran eskutitz bat bidali genion erantzunik jaso ez genuela ohartaraziz. Handik denbora gutxira bilera batera deitu gintuzten, baina enpresak ez zion guk aurkeztutakoari erantzun eta azarorako proposamen bat egingo zigutela esan zigun. Baina ezen ezer iritsi eta abenduaren 14an eskaini genuen prentsaurrekoaren ondotik aurkeztu ziguten.

Baina baztertu egin zenuten...

Bai. Ez ziguten soldata igoerarik proposatu. Plus bat eskaintzen ziguten egoitzako okupazioaren eta langileen bajen araberakoa. Hau da, bajak %4 baino gehiago baziren plus hori

kendu egiten ziguten edo momentu batean aitona-amonak gutxiago baleude egoitzan, orduan ere ez genuke hori jasoko. Poliziaren lana egiten ibili behar al gara orain? Langide bat gaixo baldin badago lanera etortzeko eskatuz bestela plus hori ez dugulako kobratuko? Guk gainerako egoitzen baldintza berdinetan lan egin nahi dugu. Eta bakarrik sentitzen gara borroka honetan.

Beteluko Udalak gaia enpresaren eta langileen artean negoziatu beharreko kontua dela uste du...

Baina Udala enpresaren parte da. Hiruko elkarrizketa bat izaten saiatu ginen, baina gutaz paso egin dute. Enpresaren jabetzaren herena du berea eta dirutza inbertitzen ari da egoitza horretan eta diru publikoa inbertitu eta gero herritarrek zein egoeratan aurkitzen garen jakin behar dute. Eta Nafarroako Gobernuak ere 25 plaza ditu kontzertatutarik, eta aldiz egoitzan ez ditugu lanerako baldintza duinak.

● ● Beteluko Udala

“Ez da bidezkoa ardura Udalarari egoztea”

Beteluko Udalak aurreko alean adierazi zuen moduan langile eta enpresaren arteko desadostasunak euren artean negoziatu beharreko gaia dela uste du, Udalak ez baitu inoiz ere parte hartu enpresaren kudeaketan. Mikel Rekalde alkateari gaiaren inguruan galdetu diogu eta oso argi dauka:

“Guk jabetzaren zati bat daukagu, parte-hartze ekonomiko bat alegia, baina ez dugu inoiz izan enpresaren kudeatzearen ardura. Gure gogoia, enpresa bat asentatzea eta bailaran zerbitzua eskaintzea izan da beti”.

“Nafarroa mailako hitzarmen probintziala lantzen saiatzea positiboa

ikusten dugu, izan ere, Nafarroa mailan lan berdinarengatik lan baldintza berdintsuak izatea zentzuzkoa litzateke”.

“Krisiaren ondorioz, lan baldintzen prekarizazioa orokorrean gertatu da eta ez bakarrik Betelun. Nafarroa osoan eta inguruko erkidegoetan ere bai. Alde horretatik, ulertu dezakegu langileen egoera hobetzeko ahalegina. Hala ere ez dugu egokia ikusten enpresaren izen onaren kontra aritzea. Momentuz, Amavir-beteluk toki ona okupatzen du Nafarroako egoitzen artean, loturarik gabeko egoitza da... Hori dena neurri handi batean langileen kapazitate eta ahaleginarengatik ere bada baina zaindu ere egin behar da”.

Hemen da Bardoak 2018

Aurtengo Bardoak Nafarroako taldekako bertso egitasmoan 16 talde arituko dira bertsoetan, guztira 74 bertsolari, tartean larraundar eta arazitarrakin osatutako (Larraun da Araitz) Bi dozena taldea.

Nafarroako taldekako bertso egitasmo honen aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere esperientziadun bertsolariak hasiberriekin nahastuta arituko dira.

Guztira 23 saio izanen dira. Joan den otsailaren 2an izan zen lehena Beran eta otsailaren 18ra bitarte luzatuko da lehen fasea. Tarte horretan talde bakoitzak bi talderekin bina saio egingo ditu, bat "etxean" eta bestea "kanpoan". Bigarren fasea martxoaren 2tik martxoaren 11ra arte izanen da eta hiru sailkatuko dira finalera.

Gainera finala aurten Lekunberrin izanen dugu, martxoaren 24an Toki Alai Sagardotegian. "Finala, lehiak harago, Nafarroako bertsolaritza-ren eta euskal kulturaren festa handia izango da".

Luis Mari Larreta, Juan Mari Irastortza, Aitor Irastortza, Joana Ziganda, Arkaitz Goikoetxea, Maddi Urrea eta Joxe Mugiro arituko dira bertsoetan (Larraun da Araitz) Bi dozena (Larraun-Araitz) taldean. Etxeko saioa Errazkingo ostatuan izanen dute, otsailaren 10ean.

Hona hemen lehen faseko saioen hitzorduek:



Aurtengo Bardoak ekimenaren aurkezpen ekitaldian.
Arg: Nafarroako Bertsozale Elkarte.

OTSAILAK 4, BARAÑAIN

Barakinak (Barañain) eta Pirini Bardó (Pirinioak).

BERTSO MERENDUA

Barañaingo Akelamendi Tabernan,
18:00etan.

OTSAILAK 9, LESAKA

Barakinak (Barañain) eta Unibertso-lariak (Lesaka).

BERTSO MERENDUA

Lesakako Arrano Elkartearen,
19:00etan.

OTSAILAK 9, OTSAGABIA

Amortziaren eliobak (Hendaia-Auritz-Lesaka) eta Xirristi Drimtin (Iruñea).

BERTSO MERENDUA

Otsagabiako Gartxot Elkarte,
19:00etan.

OTSAILAK 9, LAKUNTZA

Addams familia (Malerreka-Baztan) eta Sakana Zart (Sakana).

BERTSO SAIOA Lakuntzako Sorginak tabernan, 20:00etan.

OTSAILAK 10, ERRAZKIN

Larraun da Araitz. Bi dozena (Larraun-Araitz) eta Lizaharrak (Lizarra).

BERTSO MERENDUA

Errazkingo Txirrika elkartearen,
17:30ean.

OTSAILAK 10, BARAÑAIN

Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi (Bera) eta Patioko banda (Barañain).

BERTSO MERENDUA

Barañaingo Gaztetxean, 19:00etan.

OTSAILAK 11, BARAÑAIN

Barañetak (Barañain) Sakana Zart (Sakana).

BERTSO MERENDUA

Barañaingo Haizea elkartearen,
18:00etan.

OTSAILAK 16, ALTSASU

Sakana Zirt eta Patioko Banda.

BERTSO SAIOA Altsasuko gaztetxean,
21:00etan.

OTSAILAK 16, LIZARRA

Lizaharrak eta Mirristi Drimtin.

BERTSO MERENDUA

Lizarrako Gure Hizkuntza elkartearen,
19:30etan.

OTSAILAK 16, IRUÑEA

Xirristi Drimtin eta Aldatzea Komeni.

BERTSO SAIOA Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen, 20:30 etan.

OTSAILAK 17, IRUÑEA

Topa Bardo kopa! Eta Amortziaren eliobak.

BERTSO MERENDUA

Iruñeko Alde Zaharreko gaztetxean,
19:00etan.

OTSAILAK 17, GARRALDA

Pirini Bardó eta Unibertsolariak.

BERTSO SAIOA Garraldako Etxebarrengo elkartearen, 19:30etan.

OTSAILAK 17, ELGORRIAGA

Addams familia eta Barañetak.

BERTSOMERENDUA

Elgorriagako ostatuan, 18:00etan.

BETELU



Neskak Kantoreen taldean lehenengoz

Betelun Errege Egunaren bezperan egin ohi den Kantoreen puska-biltzan mutilak baino ez ziren ateratzen orain arte. Aurten historian lehenengoz neskek ere atera dira. 15 eta 21 urte bitarteko 25 lagun inguru elkartu ziren eguerdi partean Beteluko apezetxearen atarian. Horietatik ia erdia neskek. Inaxio Azkoaga apaizak egin zien ongietorria eta lehenengo ardo tragoak edan eta gero, bertan eman zioetan hasiera puska-biltzari. Ondoren, alkatari abestu zizkieten koplak eta gero herriko gainerako etxetan ibili ziren. Proposamena egin zenean gaiak herrian zeresana eman bazuen ere eguna giro ederrean pasa zuten denek.



UITZI

Hasi da mozorro festa!



Uitziarak beti bezain goiz ospatu dituzte aurtengoan ere herriko inauteriak. Errege Egunaren ondorengo asteburuan mozorroak jantzi eta festari hasiera emateko tradizioa den moduan txerria hil zuten eta ondoren puska-biltzan ibili ziren herrian barna. Aurten Miren Iraizoz eta Jose Luis Igartua arduratu dira inauteriak antolatzeaz.

Otsailean, eskualdeko hainbat herritan ospatuko dituzte, Lekunberrin, Betelun, Aldatzen, Arruitzen, Gaintzan eta Baraibarren, besteak beste.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Abiatu da sagardo denboraldia

Urtarrilaren 19an ireki zuten sagardo denboraldia Nafarroan. Nafarroako Sagardotegien Elkarteak Berueteko Behetxonea sagardotegian egin zuen estreinaldia.

Beruetekoarekin batera beste lau sagardotegik osatzen dute elkar-
tea, Lesakako Linddurrenbordak,
Lekarozko Larraldeak, Lekunberriko
Toki-Alaik eta Aldazko Martitxoneak.
Aurten guztira 250.000 litro inguru
kupeleratu dituzte. Elkartean urtero
kide den sagardotegi bat aukeratzen
du denboraldia ofizialki irekitzeko.

Aurten Berueteko Behetxonea
izan zen arduraduna eta Nafarroako
aurpegi ezagunak elkartu zituzten
bertan. Lehenengo txotx hori egin
aurretik Baztango kirikoketalariek zura
gaineko kolpeekin horren bereizgarria
den joku-musika jo zuten eta kupela-
ri berari eskainitako auresku baten
ondotik ireki zuten lehena.

Gure eskualdeko sagardotegiek
ere dagoeneko ireki dituzte euren
ateak. Maiatzaren amaiera arte bes-
teak beste bakailao tortilla, bakailaoa
piper berdeekin, txuleta, gazta eta
intxaurrez osatutako menu berezia
dastatzeko aukera izanen da. Egunez
nahiz gauzez, lagunekin edo familian
gozatzeko moduko plana izan ohi da.

**“San Sebastian egunean
ireki genuen eta hasi da
jendea etortzen”**

Bertatik bertara hiru sagardotegi
ditugu: Toki-Alai sagardotegia Le-
kunberrin, Juanluzenea Oderitzen
eta Martintxonea Aldatzen. Ostiral
gauetik igande eguerdira daude hi-
rurak zabalik eta gainerako egunetan
aurrez eskatuz gero taldeentzat ere
irekitzen dute.

Aurtengo negua ez da iazkoa
bezain gogorra izan eta sagardo
ekoizleek uzta ona jaso dute, askok
ez dute sagarra atzerritik ekarri beha-
rrik ere izan. Martintxoneako Inaxio
Begiristainekin, Juanluzeneako Idoia
Igoarekin eta Toki-Alai sagardotegiko
Ismael Urbizurekin izan gara.

**Zenbat litro sagardo ekoitzi ditu-
zue aurten?**

Inaxio: Guk 20.000 litro.

Idoia: Juanluzenean ez dugu sa-
gardoa ekoizten, Zapiain sagardoa
eskaintzen dugu eta garrantzia han-
diago ematen saiatzen gara janariari
eta kalitateari.

Ismael: Guk 50.000 litro. Hamar
kupel. Aurreko urteetan sagarra
Normandiatik ekarri izan dugu, baina
aurten dena bertako uztarekin egin
dugu. Lehengo urtetik sagardo pixka
bat gelditzen zen eta hala komeni da
gainera. Hasieran sagardoa egiteke
egoten delako. Hala ere, aurten na-
hiko aurreraturik dihoa, urriaren er-
dialderako eginda geneuzkan. Eta iaz
urrian hasi ginen egiten. Izotzak ere
zerikusia du. Lehengo urtean izozte
handiak egin zituen, horrek fermen-
tazioa gelditu egiten du eta ondorioz



Bertako sagardotegiek ilbeltzaren 20an ireki zituzten ateak. Arg: J.A. Garaiakoetxea.

berandu etorri zen sagardoa. Aurten izozte handienak hasterako sagardoa egina genuen.

Eta aurtengoa uzta zermoduzkoa izan da Inaxio?

Inaxio: Guretzako berezia, hemengo sagarrarekin egin dugulako guk ere. Sagarrak argiagoak atera dira aurten eta sagardo arina atera da, graduazio alkoholiko baxukoa eta oso erraz edaten dena.

Zer moduzko denboraldi hasiera izan duzue?

Inaxio: San Sebastian egunean ireki genuen eta hasi da jendea etortzen. Atzo, astelehena izanik ere hamabi laguneko kuadrilla bat izan genuen eta asteburuan ere ongi egin genuen lan.

Idoia: Gu ere nahiko ongi, gertatzen dena da denek larunbat eguerdian etorri nahi dutela eta otsaila eta martxoko larunbatak ia betetan ditugu bazkaritarako. Batez ere Iruña inguruko jendea etortzen zaigu autobusean eta taldeka.

Ismael: Guk ere urtarrilaren 20an ireki genuen eta jendea hasieran galdezka ea ireki ote genuen, baina bigarren asteburutik aurrera nahiko ongi ari gara lanean. Lekunberriko inauterietarako dena beteta dugu jada eta enkargu dexente jasotzen hasi gara.



“Denek larunbat eguerdian etorri nahi dute”





Eskualdeko 31 korrikalarik parte hartu dute Araitz-Beteluko Kroseko proba nagusian

164 korrikalari elkartu ziren guztira joan den ilbeltzaren 14an izan zen Araitz-Beteluko XIII. Krosean eta beste 99 neska-mutikok parte hartu zuten haurren lasterketetan. Antolatzaileek azkenean proba plazan bukatzeko aukera baztertu egin zuten eta azken urteotako ibilbideari eutsi zioten.

Proba nagusian, Zizur Nagusiko Marta Muñoz izan zen azkarrena 31 minutu eta 10 segundorekin eta bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu ziren Oihana Ortiz (00:31:53) eta Maria Velazquez (00:32:00). Gizonezkoetan ere beste zizurtar bat garaile. Javier Nagorek 24 minutu eta 54 segundorekin lortu zuen 7,7 kilometroak egitea eta atzetik iritsi ziren Raul Amatriain (00:25:10) eta Jose Antonio Gomez (00:25:23).

Eskualdeko lasterkariei dagokienez, 31 lagunek parte hartu zuten. Arribeko Izar Amundarain eta Beteluko Xabier Satrustegi igo ziren podiumeko lehen koskara.



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



KADETEAK: 03-04 jaiotakoak (3100 m helduen zirkuitoari buelta bat)

MUTILAK:

- 1.- Cian Aranburu 00:10:47 (Betelu)
- 2.- Iago Arregi 00:10:49 (Betelu)
- 3.- Oier Goñi 00:11:20 (Errazkin)

NESKAK:

- 1.- Leire Olano 00:14:27 (Betelu)
- 2.- Idoia Lizarraga 00:15:26 (Aldatz)
- 3.- Naroa Flores 00:18:03 (Atallu)



Horra hor eskualdeko korrikalarien sailkapena:

IZEN-ABIZENA	HERRIA	DENBORA
Xabier Satrustegi	(Betelu)	00:26:48
Ander Arraztio	(Betelu)	00:28:02
Joanes Rekalde	(Betelu)	00:29:50
Xabier Azpirotz	(Astitz)	00:30:13
Aitor Rekalde	(Betelu)	00:31:04
Iñigo Lasarte	(Lekunberri)	00:31:10
Imanol Jaka	(Etxarri)	00:31:18
Mikel Mikeo	(Lekunberri)	00:31:30
Iñaki Elizalde	(Betelu)	00:31:38
Alfontso Etxarri	(Arruitz)	00:31:49
Asier Otxotorena	(Atallu)	00:31:52
Ander Elizalde	(Betelu)	00:31:55
Luis Mari Larreta	(Aldatz)	00:31:57
Iñigo Garmendia	(Betelu)	00:33:19
Martin Askarai	(Gaintza)	00:33:29
Iñaki Alvarez	(Betelu)	00:33:29
Izar Amundarain	(Arribe)	00:33:45
Mikel Amundarain	(Arribe)	00:33:50
Josu Oreja	(Errazkin)	00:35:09
Iñigo Oreja	(Errazkin)	00:35:29
Santi Garmendia	(Betelu)	00:35:53
Miguel Ramon Olano	(Betelu)	00:36:06
Ibai Soroa	(Arribe)	00:36:29
Andoni Urrestarazu	(Betelu)	00:36:30
Iosu Estanga	(Betelu)	00:36:48
Unai Lizarraga	(Aldatz)	00:36:48
Ander Mikel Zinkunegi	(Arribe)	00:37:37
Arantza Mauleon	(Aldatz)	00:38:35
Hildegart Gonzalez	(Betelu)	00:39:14
Jose Javier Arregi	(Betelu)	00:39:15
J.Martin Martinikorena	(Errazkin)	00:41:20

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON



Lontxo
Otamendi
Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Nere Sotil



Alkohola eta osasuna

Bada elikaduran askotan kontuan hartzen ez dugun osagai bat, eta hori alkohola da. Eta ziurtatzen dizuet osasunean eragin zuzena, argia eta garrantzitsua duela, nahiz eta jende askok oraindik pentsatu, ardoa, sargardoa, garagardoa... eta zenbait likore ez direla hain kaltegarriak. Izan ere, oraindik gure elikadura piramidean aurkitzen dira.

Nutrizionalki alkoholak ez digu ezer eskaintzen, ez digu ez bitaminarik, ez mineralik, ez beste ezer eskaintzen, 7 kilokaloria bakarrik alkohol gramo batengatik, gehi, edari hauei jartzen dizkiegun azukreak. Beraz, merezi al du ezer eskaintzen ez digun produktu bat kontsumitzeak?

Agian oso gogor jarri naiz, baina

errealitatea da, oso ongi ez dakigun errealitate bat. Gure kulturaren bestalde alkohola duten edariak ibiltzen dira bueltaka. Bazkari edo afari batean ez dira faltan izaten ardoa, sargardoa... ezta kafea eta gero hartzen ditugun kopa edo konbinatuak ere. Normalizat hartzen ditugu.

Baina ba al dakigu benetan zer eragin dezakeen alkoholak gure osasunean epe motz edo luzera?

Hona hemen sor daitezkeen gaixotasun ezberdinak:

- Minbizia, batez ere: ahoa, faringea, laringea, esofagoa eta gibela.
- Gaixotasun kardiobaskularrak.
- Hipertentsio arterial altua.
- Gaixotasun hepatikoak.
- Burmuineko arazoak (dementziak).

- Pankreatitisa.
- Giltzurrunetako arazoak.
- Depresioa.

Hala ere ez dezagun ahaztu dena oreka bat dela eta elikadura eta ariketa fisikoa ere oso garrantzitsuak direla.

Beraz, honekin berriro ere animatzen dizuet elikadura osungarri bat eramatea, mugitzea eta tabakoarekin eta alkoholarekin kontuz ibiltzea. Azken biak ez badira kontsumitzen hobea, gure gorputzarentzako toxikoak baitira.

Hurren arte!

**M. Angeles
Urrizalki**

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako Korre-
sponsala**

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldaturako platerak.

Ettxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Tel: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

MIS MARCADO- RES



Aplikazioa Play Store edo App Storetik (Android edo Apple ezberdinduz) jaitsi eta instalatu ondoren, prest egongo emaitzak kontsultatzeko. Mis Marcadores ireki eta goian bi aukera emango dizkigu: ezkerrean kirola aukeratzeko aukera emango eginda, zuzenean aukeratuko dugu. Behin bi aukerak eginda, zuzenean aukeratuko edo dena ikusteko aukera emango dizu.

Aplikazio honek gustuko partiden jakinarazpenak ditu eta markagailua aldatzean abisatuko dizu.

Gaurkoan Mis Marcadores kirol aplikazioa aurkeztu nahi dizuet. Honek, kirol ezberdinen emaitzak zuzenean nahiz ondoren ikusteko aukera ematen du. Kirol asko dauzake bertan tenisa, futbola, beisbola... baita ezonikoak diren beste hainbat kirol ere.



Ander Elizalde

digitala
smart
bidali ikusi
artekatu
app
download

Araxesen jardunaldi jarraiaren alde egin dute eta Ibarberrin proiektua bazterturik gelditu da

Araxes ikastetxean joan den ilbeltzaren 16tik 18ra bitarte izan zuten gurasoek euren boza emateko aukera. Parte-hartze handia izan zen, %97koa eta kontaketa egin eta gero baiezkokoak irabazi du, 79 boza alde, 19 boza aurka eta 2 boza zurirekin.

Dagoeneko, Nafarroako Hezkuntza Departamentuan bere proiektua aurkeztu du Araxes ikastetxeak eta onartuz gero, datorren ikasturtean martxan jarriko du.

Gurasoen bozketaren aurretik beste hiru bozketa egitea eskatzen zuen Hezkuntza Departamentuak eskola jardunaldia aldatu ahal izateko. Lehenik klaustroa osatzen duten irakasleen %60ko onespena lortu behar zuten, ondotik eskola kontseiluan ere bozen %66k alde behar zuen eta bozen %60 aldekoak izatea beharrezkoa zen gurasoen bozketan.

Ibarberrin lehen bi bozketetan jardunaldi jarraiaren alde egin zuten, baina gurasoen bozketan ikastetxean ez zuten lortu behar adina onspen. 146 boza izan ziren alde, 116 aurka, eta 8 boza zurian. Ibarberrin parte-hartzea %88koa izan zen eta

aldeko bozak gehiago izan baziren ere, gutxienez aldeko 184 boza behar ziren jardunaldi jarraiaren proiektuarekin aurrera egiteko. Beraz, oraingoz

“Jardunaldi jarraiarekin ordu kopurua ez da murrizten”

behintzat, bazterturik gelditu da.

Jardunaldi jarraiarekin ikasleek goizeko ordutegiarekin jasotzen dituzte eskolako saioak. Hala ere, arratsaldean eskolaz kanpoko bestelako hautazko jarduerak eskaintzen dituzte ikastetxeek. Jardunaldi jarraiaren alde egin duten irakasleek onurak dituela defendatzen dute, besteak beste ikasturte guztian zehar ordutegi berdina mantzentzen delako, asteko saio kopurua handitu egiten delako, ikasle guztiei hezkuntza eskaintza zabalagoa eskaintzen zaielako eta goizez lan egiteak eskola errendimendua hobetzen duelako.

Hala ere, eztabaida eta zalantza sortu du gaiak gizarte, familiek

gaur egun dituzten eguneroko ordutegiak alda ditzakeelako edo ez dutelako argi eredu berri horrek ikasketa prozesuan, euskararen normalizazioan nahiz ikastetxearen bueltan sortzen diren giza harremanetan nola eragin dezakeen.

Araxesen “Araxes, aukerak zabaltzen” izena du Nafarroako Departamentuan aurkeztu berri duten jardunaldi jarraiaren aldeko proposamenak. Eta bertan jasotakoaren arabera, honakoak izango dira proiektua onartuz gero datorren urtean bertan izanen dituzten ordutegiak:

Ordutegi berriarekin ikasleekin zuzenean egoteko ordu kopurua ez da murrizten, alderantziz pixka bat igo egingo da. Gaur egun, 871 ikas ordu dituzte eta jardunaldi jarraiarekin 889 ordu eta erdi izango dituzte.

Ikasleen bazkaltzeko txanda 14:05ean hasiko da eta 15:15 arteko tarte izango dute. Hala ere Haur Hezkuntzako ikasleak lehenago joango dira jangelara lasaitasunez bazkaltzeko.

Garraio zerbitzua orain arte bezala, Nafarroako Gobernuak ezarritako



Ibarberrin, %88koa izan zen bozketaren parte-hartzea. Arg: Labrit.



Proiektuak ez du aldeko boza nahikorik lortu Ibarberrin. Arg: Labrit.



legediaren arabera dagozkien ikasle guztxi eskainiko zaie eta irakasleek garraiatuei harrera egingo diete. Garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak bukatzerakoan izango da, 16:15etan.

Datorren ikasturte amaieran, balorazio bat egitea aurreikusten da ordutegi berriarekin izandako esperientzia baloratzeko eta horren arabera, jardunaldi horrekin jarraitu edo ez erabakitzeko.

IKAS KOMUNITATEA ERAIKITZEN

Bestalde, Ikas Komunitatearen proiektuari dagokionez, amaitu dute Ametsen fasea Araxes ikastetxean. Eskolako sarrera eta herrietan utzitako postontziak amets bezala daude jada eta orain ametsak banan-banan sailkatu beharko dituzte, ahal den neurrian egikaritzeko. Ibarberri ere Ikas Komunitatea bihurtzeko bidean da eta datozen hilabeteetan hasiko dira bertan Ametsen fasearekin.

Urtarrilaren 23ra arte zuten Nafarroako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek jardunaldi jarraien proiektua bozkatzeko aukera. Dagoeneko, 95 dira Nafarroan jardunaldi jarraiarekin lan egiten duten ikastetxeak eta aurtengo bozketetan proiektuaren alde egin duten guztxiek Hezkuntza Departamentuaren oniritzia jasoz gero, 109 izango dira datorren urtean eredu hori izanen dutenak.



Amets bezala gelditu dira Araxes ikastetxeko paretak. Arg: Araxes ikastetxea.

Araxes ikastetxean 2018/2019 ikasturterako proposatutako ordutegia:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	
	ATELEHENETIK OSTIRALERA
9:00-9:45	1. SAIOA
9:45-10:30	2. SAIOA
10:30-10:50	JOLAS GARAIA 20'
10:50-11:35	3. SAIOA
11:35-12:20	4. SAIOA
12:20-12:35	JOLAS GARAIA 15'
12:35-13:20	5. SAIOA
13:20-14:05	6. SAIOA

Bigarren Hezkuntza		
	ATELEHENETIK OSTEGUNERA	OSTIRALA
09:00-10:00	1. SAIOA	09:00-9:45
10:00-11:00	2. SAIOA	9:55-10:30
11:00-12:00	3. SAIOA	10:30-10:50 JOLAS GARAIA
12:00-12:30	JOLAS GARAIA 30'	10:50-11:35
12:30-13:25	4. SAIOA	11:35-12:20
13:25-14:20	5. SAIOA	12:20-12:35 JOLAS GARAIA
14:20-15:15	6. SAIOA	12:35-13:20
		13:20-14:05

**LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO MOZIOAK:
LARRAUNGO UDALEKO KONTRATAZIOETAN KLAUSULA SOZIALAK TXERTATZEKO KONPROMISOA.**

1- Kontratutako zerbitzuetako langileen LAN BALDINTZAK dagokion HITZARMEN KOLEKTIBOAREKIN bat etortzea bermatzeko konpromisoa hartzen du Udalak.

2- Larraungo Udalaren kontratazio-prozedura publiko guztietan KLAUSULA SOZIALAK txertatuko dira. Horrela arloz arlo landuko dira: ingurumenean, emakume eta gizonen berdintasunean, lan baldintzetan, euskarari, tokiko kontsumoa sustatuz etab.

3- Aurreko puntua aurrera eramateko Larraungo Udalak BATZORDE TEKNIKO bat sortuko du klausula sozialen instrukzioak sortzeko eta behar den azterketa, ezarpena, inklusioa eta jarraipena egiteko aipatutako kontratazioetan. Batzorde teknikoan udal tade politiko guztiak egongo dira ordezkatuak kide banarekin eta hauekin batera udal idazkariak osatuko du batzorde teknikoak. Batzorde teknikoak egokia ikusten badu kanpo aholkularitza eskatu daiteke laguntzeko.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak



Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte

ARBEONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MAILOPE!
GUNDU MAILO
LAGUN

MAILOPE!
GUNDU MAILO
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

OTSAILA

10 | ERRAZKIN:

Bardoak 2018. Errazkingo Txirrika Elkartean bertso merendua, arratsaldeko 18:30ean.

16 | LEKUNBERRI:

Latinoamerikako egoera eta Boliviako prozesua eza-gutzeko hitzaldia. Arratsaldeko 19:00etan, Ontza Zulon.

18 | LEKUNBERRI:

Zine emanaldia "Tambien la lluvia", Boliviako uraren gerrari buruzkoa. Arratsaldeko 18:30ean, Ontza Zulon.

23 | LEKUNBERRI:

"Errefuxiatuen eta migranteen egoera aztertzen Europan". Arratsaldeko 19:00etan, Plazaolako aretoan.

23 | BETELU:

Mailope Aldizkariaren bazkideen batzarra. Arratsaldeko 18:00etan Indianoetxean.



SALGAI

- Lekunberrin 90 metro karratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).

BESTERIK

- Betelun azaroaren bukaeran urrezko lepokoa eta zintzilikarioa aurkitu ditugu. Jabeak deitu dezala 606 375 855 mugikor zenbakira.

- Collie arrazako bi txakur oparitzen dira. 4 hilabete dituzte. Ongi zainduko direnaren baldintzarekin emango dira. 629 403 220 (Iñaki).



Ihoteak inauteriak

LEKUNBERRIKO INAUTERIAK

Otsailak 3

11:00 Hamaiketakoa Kattagorri elkartearen (Txartelak Mitxause-
nean salgai 10 eurotan).

12:00 Haurrentzako musika eta goxokiak Herriko Plazan.

13:00 Inauterietako mozerro lehiaketa txarangarekin alaiturik
Herriko Plazan.

19:00 Irurtzungo Zanpantzarrak eta pertsonaiak herrian zehar.

20:00 Attezarkoren erretzea Herriko plazan.

ALDAZKO IHOTEAK

Otsailak 10

10:00 Gosarie Martixa elkartearen.

12:00 Kalejira herrian zehar.

14:00 Bazkarie Martixa elkartearen.

18:00 Poteoan sagardotegira eta ostatura.

21:00 Afarie ostatuan.

ARRUIZKO IHOTEAK

Otsailak 10

Eguerdi aldea hamaiketakoa eta puskebiltzea etxez-etxe. Ondo-
ren, bazkaria eta atsaldoko puskebiltzea. Iluntzean Attezarkoren
erretzea eta merendu-afaria.

BARAIBARREKO IHOTEAK

Otsailak 17

10:00 Herriko plazan elkartzea.

10:15 Gosaria herriko ostatuan.

11:30 Kalejira herrian zehar.

15:00 Bazkaria herriko ostatuan eta ondoren festak jarraitu egingo du.

BETELUKO INAUTERIAK

Otsailak 17

10:30 Puskabiltza herrian zehar 3indarock elektrotxarangarekin.

15:00 Bazkaria Beteluko frontoian.

Ondoren "Eman ezazu show-a!" (Kuadrilla bakoitzak nahi duen
antzerkia, koreografia... egin dezake). Animatu!!!

18:00 Dantzaldia Fun&Go taldearekin.

00:30 Dj Oixani.

GAINTZAKO IHOTEAK

Otsailak 17

10.30 Puskabiltza elektro txarangakin.

14:30 Herri bazkaria. Ondoren berbena Fan&Go taldearekin.

00.30 Dj Oixni.

